**Esp.-kodea:** 2016SAPL0009

**U D A L P L E N O A**
**Ezohiko bilkura**

## BILKURA DATUAK

| EGUNA: 2016/09/13 | TOKIA Udaletxea |
|---|---|
| HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 – 18:30 | |

**BILDUTAKOAK:**

| | |
|---|---|
| Lehendakaria: | Maria Ubarretxena Cid (EAJ-PNV) |
| Zinegotziak: | Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)<br>Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)<br>Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)<br>Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)<br>Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)<br>Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)<br>Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)<br>Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)<br>Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)<br>Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)<br>Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)<br>Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)<br>Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)<br>Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)<br>Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)<br>Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)<br>Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)<br>Igor Urizar Murgoitio (Baleike)<br>Eva Abuin Bideburu (Baleike)<br>Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate) |
| Idazkaria: | Amaia Gorrotxategi Zubizarreta |
| Beste funtzionario batzuk: | Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea. |

**BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK:**

| | |
|---|---|
| **BERTARATZE** | Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan. |

**ETA IRTEERAK:**

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):** Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

## 1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2016ko uztailaren 12ko eta abuztuaren 30eko bilkuretako aktak, aho batez, onartzen dira.

## 2.- A.E. 56.- ZERRAJERA ESPARRUAREN 1. LUR-ZATIAREN (APRENDICES) ERABILERA NAGUSIA ALDATZEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIA BEHIN BETIKOZ ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2016HPBE0004)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko ekainaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen *A.E. 56.- Zerrajera esparruaren 1. lur-zatiaren (Aprendices) erabilera nagusia aldatzeko Hiri Antolamenduaren Plan Berezia*ren dokumentua hasiera batean ontzat ematea

Plan Berezi horren helburua bakarra da A.E. 56.- Zerrajera antolamendu esparruan dagoen 1 lur-zatiaren erabilera nagusia aldatzea. Hau da, gaur egun teknologia parkeetako jarduera erabilera dena, hornikuntza erabilerara aldatzea planteatzen du.

Aipatutako dokumentua jendaurrean jarri da eta hartarako emandako epean ez da alegazio idatzirik aurkeztu.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik, eta Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 97 artikuluan eta 95-96 artikuletan ezarritakoaren arabera eta 7/1985 Legearen, apirilaren 2koa, Tokiko Errejimenaren Oinarriak arautzen dituena, 21 artikuluan (11/1999 legeak, apirilaren 21ekoa, emandako idazketarekin) hauxe proposatu du Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzordeak:

**I.-** Behin betikoz onartzea *A.E. 56.- Zerrajera esparruaren 1. lur-zatiaren (Aprendices) erabilera nagusia aldatzeko Hiri Antolamenduaren Plan Berezia*ren dokumentua.

**II.-** Agiriaren ale bat bidaltzea Gipuzkoako Foru Aldundiari, dagokion erregistroan gorde dezan.

**III.-** Behin betikoz onarpenaren akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, aldaketa indarrean sar dadin.

**3.- MUSAKOLA AUZOA 26 - 10. BIS-EAN DAGOEN EKIPAMENDUKO ERAIKINAREN KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEKO ESPEDIENTEA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA. (2016HAFE0002)**

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

**IKUSIRIK** Arrasateko Udalak Musakola auzoa 26-10 BIS-ean dagoen ekipamenduko eraikinaren titularra dela.

Egun Udal Ondasunen Inbentarioan jasotakoaren arabera, eraikinak jabari publikoko ondasun izaera du, zerbitzu publikora zuzenduta.

**IKURISIK,** 1990eko uztailaren 20an, Udal Batzarrak erabaki zuela eraikin hori egokitu eta bertan Kataide taberna-jatetxea ustiatzeko emakida adjudikatzea.

**IKUSIRIK,** emakidaren epea, 25 urtekoa, amaitu dela, Tokiko Gobernu Batzordeak dagokion hausnarketa egin du, eta ondorioa izan da komenigarria izango litzatekeela eraikinaren izaera edo kalifikazio juridikoa aldatzea. Izan ere, eraikina jarduera horretara bideratzeko ez da beharrezkoa gaur egun daukan kalifikazioa izatea. Kalifikazio aldaketa horren ondoren eraikina ondare ondasun izaera izango luke eta, horrela, Udalak aukera izango luke enkantearen bidez eskaintzaile hoberenetakoari saltzeko.

**IKUSIRIK** aldaketa hori burutzeko Tokiko Udalbatzen Ondasunen Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion espedientea izapidetu behar dela, ziurtatuz aldaketaren egokitasuna eta zilegitasuna.

Hori horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko maiatzaren 19an, erabaki zuen eraikinaren kalifikazio juridikoa aldatzeko espedientea hastea, jabari publikoko ondasun izaeratik desafektatzeko eta ondare ondasuna moduan kalifikaturik geratzeko, eta espediente hori jende aurrean jartzea.

**IKUSIRIK** espedientea jende aurrean egon dela, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ez duela inork erreklamaziorik aurkeztu, ez eta alegaziorik ere, hartarako ezarritako epean.

**KONTUTAN IZANIK** izapidetutako espedientetik ondorioztatzen denaren arabera, hirigintza ikuspuntutik ez legokeela eragozpenik eraikinaren kalifikazio juridikoa planteatu den eran aldatzeko.

Bestalde, aipatutako eraikinaren kalifikazio juridikoa aldatzeko egokitasuna eta zilegitasuna ziurtatuta geratu da.

Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 8. artikuluan eta horiekin bat datozen gainerako aginduetan xedatutakoaren arabera, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak honako akordio hau hartzeko proposatu dio Udalbatzarrari:

**I.-** Musakola auzoa 26-10 BIS-ean dagoen ekipamenduko eraikinaren kalifikazio juridikoaren aldaketa ontzat ematea, jabari publikoko ondasun izaeratik desafektatzeko eta ondare ondasuna moduan kalifikaturik geratzeko.

**II.-** Ahalmena ematea alkate-udalburuari edo legez ordezten duen alkateordeari, meritatutako partzelak onartzeko, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendu horretako 8.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

**4.- HAINBAT LANPOSTUREN BALORAZIO BERRIAK FINKATZEA.**

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Enplegu Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalak 2003ko maiatzaren 20an onartutako araudian jasotako 'balorazioak berriro ikusteko prozedura'ri jarraituz, hainbat lanpostuen balorazioak aztertu edo berraztertu ditu Balorazio Komiteak, 2016ko martxoaren 10ean, apirilaren 19an, maiatzaren 23an eta maiatzaren 26an egindako bileretan.

Gainera, uztailaren 6an egindako bileran, Balorazio Komiteak egindako aurre-kalifikazioen aurka aurkeztu diren alegazioak ere aztertu izan ditu.

Ondorioz, eta dagozkion izapideak bete direnez, Enplegua eta Pertsonal batzordeak, hauxe proposatzen du:

**1/** Behean aipatzen diren lanpostuen balorazioak ezartzea, modu honetara:

✓ Orain arte baloratzeko dagoen lanpostua:

| Kod. | Lanpostua | Plaza kopurua | Sailkapen taldea | Destino osagarria (Puntuak) | Destino osagarria (Maila) | Espezifiko osagarria (Puntua | Egungoa | Berria | Aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | k) | | | |
| **173** | **Piszinetako monitorea** | 2 | C2 | 425 | 17 | 655 | BG (7) | **9,5** | 2,5 |

*Kasu honetan, beharrik balego, balorazio zaharraren eta berriaren arteko aldea ordainduko da Udalbatzarrak akordioa hartzen duen egunetik aurrera.*

✓ Aparteko berrikuspena izan duen lanpostua:

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **147** | **Garapen iraunkorreko teknikaria** | 1 | A2 | 600 | 20 | 680 | 13,5 | **14,5** | 1 |

*Kasu honetan, aldaketak atzera eragina izango du balorazio komiteak lanpostuen monografia aztertu zuen egunera artekoa. (2016.05.26)*

✓ Birsailkatutako lanpostua:

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **44** | **Hiri-zerbitzuen teknikaria** | 1 | A2 | 750 | 22 | 865 | 15 (C1) | **17** | 2 |

*Kasu honetan, birsailkatutako lanpostua izanik, aldaketak atzera eragina izango du lanpostuaren titularrak lanpostuaren jabetza hartu zuen egunera arte (2015.10.01)*

**2/** Lanpostuen Zerrendan jasotzea onartutako balorazioak.

**5.- 2015 URTEALDIKO KONTU OROKORREKO ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSATZEA. (2016RBAR0021)**

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Ogasun Batzordeak, 2016ko uztailaren 19an, txosten hau eman zuen:

*"2015eko urtealdiko Kontu Orokorrari buruzko txostena.*

*Aurrekontu gaietan indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzeko, 2015 urtealdiko kontabilitate kontuak aztertu ditu batzordeak, udalarenak nahiz Iturbide Egoitza erakunde autonomoarenak; hain zuzen ere, aurrekontuaren likidazioa, kredituak aldatzeko espedienteak, diruzaintzako egoera eta aurrekontutik kanpoko dirukontuen mugimenduak, egoera–balantzea, galdu–irabazien kontua, finantzaketa–taula, ibilgetuari buruzko eranskinak, konpromisoko kredituak, finantza inbertsio iraunkorrak eta emandako abalak. Halaber, 2015eko aurrekontuen oinarriek xedatutakoaren arabera, kontratazio eta diru-laguntza ataletan aukeratutako laginketaren kontu-hartzaile ondorengo kontrolari buruzko emaitzak eta 2015eko ekitaldiari eragiten dioten eragozpenei buruzko zerrenda eman dira.*

*Kontuan izanik dokumentazio horretan ondo dagoela jasota 2015eko urtealdian bizi izandakoa Udalaren eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren arteko ibilbide ekonomikoan, eta 2015/12/31an behar bezala dagoenez jasota finantza eta ondare egoera, Ogasun Batzordeak aldeko txostena ematen dio Kontu Orokor horri.*

*Edozelan ere, udalbatzarrak onartu baino lehen, aipatu espedientea jende aurrean jarri beharko da, 15 eguneko epean, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten."*

KONTUAN IZANIK uztailaren 28tik abuztuaren 16ra arteko aldian, 2015eko Kontu Orokorrari dagokion espedientea jende aurrean egon dela erakusgai, eta ez dela aurkeztu ezelako erreklamazio, alegazio edo bestelakorik legezko epe barruan.

KONTUAN IZANIK 2015eko urtealdiko kontuei buruz "ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L." enpresak egindako auditoriari buruzko txostena, non esaten den *"2015eko ekitaldiko Arrasateko Udaleko (barne hartzen dituena Udala gehi Iturbide Egoitzako Organismo Autonomoaren kontuak) Kontu Orokorraren espedientean ez dela era esanguratsuan eragin edo alda diezaiokeen salbuespen edo objeziorik ikusi".*

Horregatik guztiagatik, Ogasun Batzorde Informatiboak, 2015eko urtealdiko Kontu Orokorra onartzea proposatzen dio Udalbatzari.

**<u>6.- 2016KO AURREKONTUAREN EXEKUZIO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2016-06-30n. (2016RBAR0029)</u>**

2016ko aurrekontuaren exekuzio egoerari buruzko informazio bidaltzen du batzordeak 2016-06-30ri buruz, zenbaki laburpen hauen arabera:

## A - GASTUAK (Datuak mila eurotan)

*A.1 - ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO GASTUAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)(Aukea sartuta)*

| ZENBATEKOA GUZTIRA | ORDAINKETA GUZTIRA | BAJAK | ORDAINDU BARIK 16/6/30 |
|---|---|---|---|
| 1.787,15 | 1.696,73 | | 90,42 |
| | 94,94% | | 5,06% |

*A.2 - TXERTATUTAKO KREDITUAK (EXEKUZIOAN DAUDEN GASTUAK, 2015EKO AURREK. LIKIDAZIOTIK)*

| ZENBATEKOA GUZTIRA | BAIMENDUA | ERABILIA (adjudikatua) | ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (exekutaturik) | ORDAINDUA | SOBERAKINA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2.540,07 | 2.478,36 | 1.848,83 | 743,77 | 651,49 | 61,81 |
| | 97,57% | 72,79% | 29,28% | 25,65% | 2,43% |

*A.3 – 2016KO URTEALDI KORRONTEA EDO AURREKONTUA (mila euroan)*

| KAPITULUA | AURREK. | GASTU BAIMENDUA | GASTU ERABILIA (adjudikatua) | AGINDUTAKOA (exekutaturik) | ORDAINDUA | ERABILGARRI |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I Pertsonalaren gastuak | 10.729,52 | 5.600,87 | 5.600,87 | 5.600,87 | 5.502,54 | 5.128,65 |
| | 100% | 52,50% | 52,50% | 52,50% | 51,28% | 47,80% |
| II Ondas. eta zerb. erost. | 10.073,29 | 6.528,14 | 6.171,29 | 3.987,46 | 3.485,61 | 3.545,15 |
| | 100% | 64,81% | 61,26% | 39,58% | 34,60% | 35,19% |
| III Maileguen inters. | 27,13 | 10,17 | 10,17 | 10,17 | 10,17 | 16,96 |
| | 100% | 37,49% | 37,49% | 37,49% | 37,49% | 62,51% |
| IV Transferentzia korronteak | 4.901,68 | 1.789,78 | 1.788,27 | 1.662,51 | 1.621,34 | 3.111,91 |
| | 100% | 36,51% | 36,48% | 33,92% | 33,08% | 63,49% |
| VI Inbertsioak | 7.240,83 | 2.841,93 | 1.186,38 | 290,57 | 276,30 | 4.398,90 |
| | 100% | 39,25% | 16,38% | 4,01% | 3,82% | 60,75% |
| VII Kapit. transferentziak | 793,90 | 296,34 | 296,34 | 296,34 | 275,7 | 497,56 |
| | 100% | 37,33% | 37,33% | 37,33% | 34,73% | 62,67% |
| VIII .Finant. aktib. | 265 | 188,51 | 188,51 | 13,51 | 13,51 | 76,49 |
| | 100% | 71,14% | 71,14% | 5,10% | 5,10% | 28,86% |
| IX Mailegu amortz. | 714,83 | 359,58 | 359,58 | 359,58 | 359,58 | 355,25 |
| | 100% | 50,30% | 50,30% | 50,30% | 50,30% | 49,70% |
| **URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA** | **34.746,20** | **17.615,32** | **15.601,42** | **12.221,01** | **11.544,53** | **17.130,87** |
| | **100%** | **50,70%** | **44,90%** | **35,17%** | **33,23%** | **49,30%** |
| **URTEALDI KORRONTEA + TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA** | **37.286,27** | **20.093,68** | **17.450,26** | **12.964,78** | **12.196,02** | **17.192,59** |
| | **100%** | **53,89%** | **46,80%** | **34,77%** | **32,71%** | **46,11%** |

**Esp.-kodea:** 2016SAPL0009

*A.4 – DATOZEN EKITALDIAK (mila euroan)*

| URTEA | GASTU BAIMENDUA | GASTU ERABILIA |
|---|---|---|
| 2017 | 344,32 | 155,95 |
| | | 45,29% |
| 2018 | 11,89 | 11,89 |
| | | 100% |
| 2019 | 90 | 90 |
| | | 100% |
| **GUZTIRA DATOZEN EKITALDIAK** | **446,21** | **257,84** |
| | | **57,78%** |

## B – DIRU SARRERAK

*B.1 ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO SARRERAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)*

| ZENBATEKOA GUZTIRA | KOBRANTZAK GUZTIRA | BAJAK | KOBRATZEKO DAUDENAK 2016-06-30 |
|---|---|---|---|
| 7.227,42 | 2.877,21 | 511,89 | 3.838,32 |
| 100% | 39,81% | 7,08% | 53,11% |

*B. 3 2016KO URTEALDI KORRONTEA - AURREKONTUA (mila eurotan)*

| KAPITULUA | AURREK. | ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK (likidatutako diru-sarrerak) | KOBRANTZA GARBIAK (% onartutako eskubideei buruz) | KOBRATZEKO DAUDENAK (% onartutako eskubideei buruz) | AURREK. DESBIDERATZ. |
|---|---|---|---|---|---|
| I Zuzeneko zergak | 7.672,64 | 6.063,07 | 5.642,48 | 420,59 | -1.609,57 |
| | 100% | 79,02% | 93,06% | 6,94% | -20,98% |
| II Zeharkako zergak | 650 | 487,32 | 105,54 | 381,78 | -162,68 |
| | 100% | 74,97% | 21,66% | 78,34% | -25,03% |
| III Tasak eta | 7.120,82 | 3.783,35 | 3.491,63 | 291,72 | -3.337,47 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| prezioak | | | | | |
| | 100% | | | | |
| IV Transferentzia korronteak | 15.016,36 | 7.543,48 | 7.280,96 | 262,52 | -7.472,88 |
| | 100% | 53,13% | 92,29% | 7,71% | -46,87% |
| V Ondare. sarrerak | 178,60 | 45,29 | 45,28 | 0 | -133,31 |
| | 100% | 25,36% | 99,98% | | -74,64% |
| VI Inoren. errealak. | 230,30 | 30,24 | 7,06 | 23,18 | -200,05 |
| | 100% | 13,13% | 23,35% | 76,65% | -86,86% |
| VII Kapit. transf. | 243,20 | 15,19 | 3,62 | 11,57 | -228,00 |
| | 100% | 6,25% | 23,83% | 76,17% | -93,75% |
| VIII Finan. akt. aldak. | 369,57 | 293,07 | 282,97 | 10,100 | -76,49 |
| | 100% | 79,30% | 96,55% | 3,45% | -20,70% |
| IX Maileguak | 876,81 | | | | -876,81 |
| | 100% | | | | -100% |
| **URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA** | **32.358,30** | **18.261,03** | **16.859,54** | **1.401,48** | **-14.097,27** |
| | **100%** | **56,43%** | **92,33%** | **7,67%** | **-43,57%** |
| DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA, 2015EKO LIKIDAZIOKOA | 4.916,97 | | | | |
| | | | | | |
| **URTEALDI KORRONTEA + SOBERAKINA + TXERTATUTAKO ZORDUNKETAK GUZTIRA** | **37.275,27** | **18.261,03** | **16.859,54** | **1.401,48** | **-19.014,25** |
| | **100%** | **48,99%** | **92,33%** | **7,67%** | **-51,01%** |

## E.BARBERENA (EH-BILDU):

Arratsaldeon denoi. Ogasun batzordean komentu nauen baina bueno gureko neuke berriz ere azpimarratzea ez? Justo lehenengo akordioa dala azokako inkesta lanak kontusaila sortzea. Guri iruditzen jaku izan leikeela asmo bat galdetzea herritarrei zein dan euren iritzia herriko ekipamendu baten inguruan baina kasu honetan zalantza sortzen jaku, haber diru hori atera dan diru-poltsa eta partida azokako inbertsioena hori dan justo ukitu beharko zana ez?

Badakigu epe ertainera asmo ezberdinak dazela azokakin eta bueno izango dala hurrengo hilabeteetako lan bat baina uste dugu momentu hontan bertan hainbat puntu egon ahal direla hobetzeko eta hainbat interbentzio txiki egin ahal diela azokan eta bereziki partida hau izan leikeela hortarako interesantea. Orduan bueno horixe komentatzea ez dakigula zelan pasako dan horrekin baina bitartean poltsa honen erabilera ahalik eta handiena izatea. Hoixe.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Ez dakit norbaitek komentariorik? Ia ke Enekok ze egingo dugu hurrengo puntuarekin

**E.BARBERENA (EH-BILDU):**

Arratsaldeon. Eneko naiz eta zeharo kontzentrauta neure interbentzioan. Barkatu.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Bueno ia irakurri egingo dugu eta ia norbaitek nahi badu hau erantzun erantzutea dauka.

**7.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO 2. HIRUHILEKOAN ONARTU DITUEN 2016KO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA.(2016RBAR0030)**

Osoko bilkurak ondoko informazioaren berri hartu du:ç

2016ko Aurrekontua Betetzeko arauen, 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketen espedienteei buruzko informazioa Udalbatzarrari hiruhilero bidaltzeari dagokionez, Ogasun Batzordeak, kronologiaz ordenaturik, 2016ko 2. hiruhilekoan onartutako espedienteen laburpen honen berri ematen dio Udalbatzarrari:

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-04-07koa, onartzen duena “1.0801.227.431.20.99 – Azoka inkesta lanak” kontusaila sortzea, 7.200€-an, “1.0801.622.431.20.00 – Azokako inbertsioak” kontu-sailetik bideratutako egokitzapen teknikoa kreditu aldaketaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-04-14koa, onartzen duena 5.500 €-an handitzea “1.0404.625.231.40.01 – Larrialde pisuko ekipamendua” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0100.226.929.00.99 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-04-21koa, onartzen duena 19.000 €-an handitzea “1.0800.601.153.36.00 – JL Iñarra espaloi kentzea” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0500.601.153.24.02.2015 – Garaia-Takolo zeharbidea proiektua” kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-05-05koa, onartzen duena “1.0510.221.162.10.99 – Kontenedoreak erostea” kontusaila sortzea, 2.000€-an,

"1.0803.622.133.00.00.2015 – Ibilgailuak gordetzeko lokala egokitzea" kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-05-05koa, onartzen duena 10.650 €-an handitzea "1.0500.601.153.24.02– Garaia-Takolo zeharbidea proiektua" kontusailaren diru-kopurua, "1.0500.601.153.24.02.2015 -Garaia-Takolo zeharbidea proiektua" kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-05-12koa, onartzen duena 14.000 €-an handitzea "1.0100.480.334.00.00 – Gob.organoen ekintza berezietako dirulaguntza" kontu sailaren diru-kopurua, "1.0100.226.929.00.99 – Kreditu globala", 11.000€-an eta "1.0500.601.153.21.00 – Alde Zaharreko plan berezia", 3.000€-an, kontu-sailetatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-05-31ko, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren %49,73ko zatiaren ordaintzea onartzen duena, horretarako lehenengo kapituluko zenbait kontusail 279.566,75€-an gehitzen dira, gehikuntza hori kreditu gaikuntzaren erregimenean finantzatu delarik (2013an sortutako funtsarekin finantzatuta).

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-05-31koa, onartzen duena 2.000 €-an handitzea "1.0406.481.337.10.00 – SUDC; Jubilatuei omenaldia" kontu sailaren diru-kopurua, "1.0500.601.153.21.00 – Alde Zaharreko plan berezia" kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-06-09koa, onartzen duena 9.438 €-an handitzea "1.0802.601.171.01.01 – Gorostiza Parke estalia" kontu sailaren diru-kopurua, "1.0802.601.171.00.00 – Haur parkeak" kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2016-06-09koa, onartzen duena 4.310 €-an handitzea "1.0802.601.171.01.01 – Gorostiza Parke estalia" kontu sailaren diru-kopurua, "1.0802.601.171.00.00 – Haur parkeak" kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Hoin bai norbaitek beste komentarioren bat?

**O.GARCIA (PSE-EE):**

Arratsaldeon guztioi. Kaixo Oscar naiz bueno ondo zegok umoreekin hartzea gauzak. Haber Eneko orain diela hilabete batzuk esan nizun zuri konkretuki denon artean egin behar genuela proiektua azokarekiko. Bere egunean bertan behera utzi genuenean zegoen proiektua plenoan esan genuen jendeak ze feeling zeukan azokarekiko, jendeak ze nahi zauen bere azokarekiko galdetu egin behar genuela. Horregatik egin genuen inkesta, uste dut denok daukazue inkesta ez badaukazue eskatu ez dago inolako arazorik eta eman dituen emaitzak argiak dira, oso argiak dira jendeak ez du nahi beste toki bat dauen tokiarekin kontent dago baina ikusten ditu zailtasun batzuk dituela azoka horrek funtzionatzeko

eta ikusten ditu infraestruktura, azpiegiturak ez dazela behar dien moduan argi eta garbi esaten ditu bi gaua hoiek inkestak.

Hortaz, abiatuz komisioan esan genuen orain dela hilabete batzuk be bai hurrengo pausoa zein izango litzatekeen, hurrengo pausoa izango da mahai bat eratzea enpresa batekin consultor batekin, politikoki inolako zalantzarik ez egoteko dena argi eta garbi “con luz y taquigrafos” esaten den moduan edukitzeko. Enpresa horrek proposatzen dauena ondion ez dago enpresarekin inolako harremanik ez enpresa batekin ez bestearekin ez dakigu ze enpresarekin egingo dugun, hemendik bi asteetara edo jarriko dugu prozesu hori martxan ez dakigu zenbat hile egongo diren mahai hortan ez dakigu ze eragile egongo diren.

Argi dago alderdi politiko guztiak egon beharko liratezkeela mahai hortan alde hortatik lasai egon egongo zaretelako eta erabakia edukiko duzuelako eta hortaz abiatuz eta mahai hortan egiten diren mugimenduekin jakingo dugu ze azpiegitura berritu behar diren ze gauzak berriztatu behar diren eta ze azoka modeloa beharrezko den Arrasaterako eta horrekin eta daukagun diru poltsa horrekin egingo ditugu behar diren lan guztiak.

Egia da, hartu dugula dirua inkesta egiteko poltsa horretatik uste dugulako inbertsioa dela jendeari galdetzea inbertsioa jendeak esaten dauena egiteko gauz hemen denok zinegotzi guztiok eta uste genuen geuk nire alderdiak zeukan proiektua eta EAJk daukan proiektua ba kaleko jendearekin hitz eginda ba ez zela errealitatea beraz horregatik galdetu genuen ez geudelako lasai gure proiektua aurrera eramateko jendeak aurka baldin bageunden. Uste dut azaldu dizudala zein dien pauso berriak eta espero dut zuekin lan hona egitea eta Arrasatek merezi duen azoka edukitzea hemendik urte batzuetara eta ia aprobetxau egingot atzo komisiotik pasau zelako pliegoa lortu dugula pliego bat ateratzea zapatuetan azoka bat jartzeko Biteri plazan azoka dinamizatzeko aukera ez daukan jendeak azokan erosteko aukera eduki dezan eta bueno ea horrekin eta egingo dugun lanarekin berritzen dugun azokaren indarra. Mila esker.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste norbaitek? Eneko.

**E.BARBERENA (EH-BILDU):**

Eskertzen dotzut azalpena ze falta zitzaigun epe bat epearen kontzeptua. Gure kezka zen azoka sortu zenetik hor espazio hortan hainbat proiektu egon die bertan behera geratu dienak arrazoi desberdinengatik badauka betiko probisionalitate itxura bat esan deigun lokal horrek. Orduan gure kezka zan bale inkesta eginda eta gu ez gaude herritarrei galdetzearen aurka nahiz eta inbertsioa izatearena agian bada kontzeptualki, teknikoki agian beste era batera ikusi behar da ez? Hau da, guk esan nahi genuena zen hori ez apur bat galdetu nahi genizuna zen ea noiz zegoen asmoa horrekin hasteko eta horrekin hasten zen bitartean egungo egoera ze azkenean martxan dago. Egungo egoeran interbentzioak egin ahal baziren guk ez genekielako epe hori zen urte bete bi urte hala sei hilabete horregatik orain aklaratuz asteetako kontua izan ahal dela eta 2016an hasi ahal dela zen hori.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Bai Oscar.

**O.GARCIA (PSE-EE):**

Mila esker Maria.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Oscar mesedez.

**O.GARCIA (PSE-EE):**

A dios rogando y con el mazo dando. Juan Luis. Bueno bai kronograma bat jartzeagatik denok lasai egon gaitezen ia esan dizut hurrengo asteetan zehar ez hilabete bat hurrengo asteetan zehar jarriko garela harremanetan hainbat enpresekin eta ikusiko dugula zer enpresakin edo konkurtsoa atera ez dakit ze formula erabiliko dugun mahai hori martxan jartzeko, mahai horren epea nik uste dut izango litzatekeela errore politikoa eta handia gainera luze joatea daukagun egoeragatik eta zuk esan duzun bezala probisionalitate hori gehiago ez izateagatik hemendik aurrera.

Nik uste dut hilabete batzuekin nahikoa izango litzateke analisi bat egiteko ia lehengo analisia eginda daukagu hor izan behar dela berriztu egin behar dela, hoin ikusi behar ze berriztapen behar dituen azoka horrek hilabete gutxi batzuekin nahikoa eta hortik aurrera obrak martxan jarri besterik ez.

Nik uste dut beti sei bat hilabeteetara gutxi gora behera jakingo dugula zelan doian gauza eta zuek komisioan informazioa behar baldin baduzue galdetu lasai asko eta erantzungo dizue.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik? Bozketa egin behar da amaia. Ez da berri ematea

**<u>8.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA</u>**

Alkatetzen ebazpenen berri ematen da.

**<u>9.- GALDE-ESKEAK.</u>**

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Galde eskeak badaz? Urki

**U.LARREA (EH.BILDU):**

Arratsaldeon denoi. Azkeneko plenoan bukatu gauen galdera berdinaz bukatukot. 10 egun gelditzen die euskara saileko batzordeburua oporrak hartzen dau eta gero jubilau ze asmo daukazue?

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Bai bueno Juanrak komentau dit zelan eduki duzuen euskara batzordea, zelan zuk ere zure kezka azaldu duzun eta normala pentsatzen jat gainera kezka edukitzea ikusita Joxefe hilabete honetan jubilatzen dala.

Oraindik egia esan erabakia ez dugu hartu, ez dugu hartu ze egin zizkiguten proposamenekin ba proposamen batzuk onartzea pentsatzen gau eta bai ari gara pentsatzen bueno herri honetan badazela euskararen inguruan lanketa oso onak egin dituzten eragileak eta bai gustatuko litzaigula eragile horiekin hemendik Aurrera agian bueno estutu elkarlana eta aurrera begira zerbait egin baina bai da egia baita ere gustatuko litzaiguela oposizioarekin kontsentsuatzea eta zuekin begiratzea eta hilabete honen baitan zuei helaraziko dizuegu ni proposamena eta zuek hori nahi dugu ikusi ea zuek nola ikusten duzuen gure planteamendua eta zuek ere beste proposamenen bat baldin badaukazue kontuan eduki baina ulertzen dut zure kezka ikusita 10 egunetan Joxefe jubilatuko dela baina bueno proposamenak hor daz eta bai gustauko jakuen zuekin begiratzea

**U.LARREA (EH.BILDU):**

Proposamenak egin ahal izateko dau Joxefek dokumentu bat aurkeztu behar zozkuna maiatzak 31an atzera bota zana dokumentu hori eskuratzerik edukiko bagenu igual proposamen bat egin ahal genuke

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Guk aurkeztuko dugu dana. Aurkeztuko dugu Joxeferen txostena, baita ere eduki ditugu proposamenak eta zer pentsatzen dugun guk egitea. Guk jarriko dugu dana mahai gainean baina gero nahi dugu ere bueno ba zuen ikuspuntua zein dan baina bueno batera egingo dugu lan guretzako euskara saila oso garrantzitsua da pentsatzen dugu udaletxe honetan zuentzat ere euskara oso garrantzitsua dela eta horretan bai behintzat bai gustatuko jakun eskutik joatea.

Beste interbentziorik badago? Beste galderarik? Bueno eskerrik asko denoi eta amaitutzat ematen dugu gaurko plenoa.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko18:30 tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2016ko irailaren 13a

| IDAZKARIA | LEHENDAKARIA |
|---|---|
| Amaia Gorrotxategi Zubizarreta | Maria Ubarretxena Cid |

**Esp.-kodea:** 2016SAPL0009

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| N16/01503 | 2016HZEH0108 | HZEH, Hirigintz diziplina eta esp. zehatzaileak | HIRIGINTZA | Sustitución de carpinterías exteriores. |
| N16/01504 | 2016HZEH0109 | HZEH, Hirigintz diziplina eta esp. zehatzaileak | HIRIGINTZA | Sustitución de carpinterías exteriores. |
| N16/01505 | 2015CHOZ0020 | CHOZ, kontratazioa, hornikuntzak eta zerbitzuak | KONTRATAZI | Aprendices eraikina birgaitzeko proiektua |
| N16/01506 | 2016SEZK0010 | SEZK, Ezkontzak | ALKATETZA | ESKONTZA ZIBILA OSPATZEKO ESKAERA |
| N16/01507 | 2016CHOZ0004 | CHOZ, kontratazioa, hornikuntzak eta zerbitzuak | KONTRATAZI | Makatzena auzoko frontoia, jolas parkea eta inguruko urbanizazioa berritzeko proiektua |
| N16/01508 | 2016HZEH0107 | HZEH, Hirigintz diziplina eta esp. zehatzaileak | HIRIGINTZA | Sustitución de carpinterías. |
| N16/01509 | 2016BDIR0009 | BDIR, Diruzaintzako Poltsa espedientea | DIRUZAINTZ | COMPENSACIÓN DE OFICIO |
| N16/01510 | 2016UZEH0024 | UZEH, arau-hausteengatik Zehapen Espedienteak hastea | UDALTZAING | Trafiko zehapen espedienteak izapidatzea |
| N16/01511 | 2016PHES0001 | P3 HES, enplegu sustapen programak | PERTSONALA | Lanbide: 2016ko Enplegua Sustatzeko Programa |
| N16/01512 | 2016SATZ0006 | SATZ, Atzerritarren inskripzioa berritzea | IDAZKARITZ | RENOVACION PADRONAL EXTRANJEROS 01-03-2016 |
| N16/01513 | 2016SEOB0052 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01514 | 2016SEOB0053 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01515 | 2016SEOB0054 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01516 | 2016SEOB0055 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01517 | 2016SEOB0056 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01518 | 2016SEOB0057 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01519 | 2016SEOB0058 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01520 | 2016SEOB0059 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01521 | 2016SEOB0060 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN ALTA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01522 | 2016SEOB0061 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01523 | 2016SSEC0022 | SSEC, Idazkaritzako Poltsa espedientea | IDAZKARITZ | Kiroldegiko. Lapurreta. Zitazioa |
| N16/01524 | 2016SEOB0062 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01525 | 2016PHPA0003 | P2 HPA, Aldibaterako hautaketa prozesuak | PERTSONALA | Prebentzio eta gizarteratzeko teknikaria |
| N16/01526 | 2016ZAZE0029 | ZAZE, Azoka erabiltzeko eskaerak | OZMA | txokolatada UZTAIL 22 UME 20 |
| N16/01528 | 2016PHPE0001 | P2 HPE, Hautaketa prozesuen Poltsa espedientea | PERTSONALA | Langileak hautatzeko instrumentuak euskarara egokitzeko eta baliozkotzeko datuen bilketarako lankidetza eskaera. |
| N16/01529 | 2016SEAL0307 | SEAL, erroldan alta ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN ALTA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01530 | 2016SSEC0024 | SSEC, Idazkaritzako Poltsa espedientea | IDAZKARITZ | UZTAILAREN 12 AN EGINGO DEN PLENOAN HITZA HARTZEKO BAIMENA ESKATZEA. |
| N16/01531 | 2016PHPA0003 | P2 HPA, Aldibaterako hautaketa prozesuak | PERTSONALA | Prebentzio eta gizarteratzeko teknikaria |
| N16/01532 | 2016UUDA0010 | UUDA, Udaltzaingoko Poltsa espedientea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA INTERPUESTA |
| N16/01533 | 2015AERA0002 | AERA, Ondare erantzukizunari buruzko erreklamazioa | KIROLA | JOSE FELIX CIA CHOCANO: RECLAMACION POR DAÑOS SUFRIDOS EN EL GIMNASIO DE MUSAKOLA |
| N16/01534 | 2016ZZEH0015 | ZZEH, espediente zehatzaileak | OZMA | Udaltzaingoa; informando sobre agresión de un perro a un menor, con fecha 6-7-2016 |
| N16/01535 | 2016NMAT0082 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | UZTAILAREN 21 EAN IBAI ARTEREN ZOZKETA BAT ANTOLATZEKO BAIMENA ETA MATERIALA ESKATZEA. |
| N16/01536 | 2016NMAT0089 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | UZTAILAREN 22 AN KARAOKE BAT ANTOLATZEKO BAIMENA ETA MATERIALA ESKATZEA. |

**Esp.-kodea:** 2016SAPL0009

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| N16/01537 | 2015REKU0053 | REKU, Helegiteak | KONTRATAZI | PDO RECURSO CONTRA LIQUIDACION PROVISIONAL DEL ICIO POR INSTALACION DE MINERIA SUBTERRANEA. |
| N16/01538 | 2016ZAZT0018 | ZAZT, Azoka txikia | OZMA | SDO PUESTO DE VENTA AMBULANTE. |
| N16/01539 | 2016UZEH0025 | UZEH, arau-hausteengatik Zehapen Espedienteak hastea | UDALTZAING | Trafiko zehapen espedienteak izapidatzea |
| N16/01540 | 2016NMAT0080 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | SDO AUTORIZACION PARA ORGANIZAR PARRILLADA EL 23 DE JULIO PARA RECAUDAR FONDOS PARA LORE GAZTEAK. |
| N16/01541 | 2016NMAT0096 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | SDO AUTORIZACION PARA ORGANIZAR UN TEATRO CALLEJERO Y EL ACCESO AL CASCO VIEJO PARA EL 28 DE JULIO. |
| N16/01542 | 2014PHBP0005 | P2 HBP, barne promozioz, lanpostu finkoen horniketak | PERTSONALA | Lehen Udaltzainen koordinazioa |
| N16/01543 | 2016NMAT0097 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | SDO USO DE MATERIAL MUNICIPAL PARA CONCIERTO EL 31 DE JULIO. |
| N16/01544 | 2016ZZEH0016 | ZZEH, espediente zehatzaileak | OZMA | Infracción de la normativa en materia de tenencia de animales |
| N16/01545 | 2016SEZK0011 | SEZK, Ezkontzak | ALKATETZA | ESKONTZA ZIBILA OSPATZEKO ESKAERA |
| N16/01546 | 2016ZZEH0017 | ZZEH, espediente zehatzaileak | OZMA | Infracción de la normativa en materia de tenencia de animales |
| N16/01547 | 2016SEZK0012 | SEZK, Ezkontzak | ALKATETZA | ESKONTZA ZIBILA OSPATZEKO ESKAERA |
| N16/01548 | 2014PHZK0001 | P2 HZK, zerbitzu komisioak | PERTSONALA | Iratxe Aranburuŕi Zarauzko Udaleko Kirol Patronatuko Zuzendari / Kirol arduradun lanpostua zerbitzu eginkizunetan bete dezan baimena ematea |
| N16/01549 | 2016PMUR0008 | P3 MUR, Lanjardunaren murrizketa | PERTSONALA | Asun Agiriano: %50eko lan jardun murrizketa eskatzea, 2016/10/03tik 2017/06/30 arte |
| N16/01550 | 2016HJKA0002 | HJKA, Jurisdikzio kontentzioso-administratiboko helegiteak | HIRIGINTZA | RCA 223/2016 LUIS ZUBIA MURGOITIO |
| N16/01551 | 2016CHOZ0001 | CHOZ, kontratazioa, hornikuntzak eta zerbitzuak | KONTRATAZI | Udal eraikinen garbiketa kontratua |
| N16/01552 | 2016CPOB0001 | CPOB, kontratazioa, proiektuak eta obrak | OZMA | 2016.URTEKO ASFALTATZE PLANA |
| N16/01553 | 2016SSEC0013 | SSEC, Idazkaritzako Poltsa espedientea | IDAZKARITZ | Memoriaren mahaia. Bilkurak |
| N16/01554 | 2016HHIR0028 | HHIR, Hirigintza eta Obrak Saileko poltsa espedientea, txikia | HIRIGINTZA | Igerilekuetara doazen erabiltzaileek Arruena parkean aparkatu ahal izateko baimena. |
| N16/01555 | 2016PIKA0039 | P5 IKA, Prestakuntza ikastaroak | PERTSONALA | Prebentzio Ordezkarien Prestakuntza |
| N16/01556 | 2015ZAZT0037 | ZAZT, Azoka txikia | OZMA | Regularización puestos MERCADILLO SEMANAL 2016 |
| N16/01558 | 2016CHOZ0016 | CHOZ, kontratazioa, hornikuntzak eta zerbitzuak | PERTSONALA | GIPUZKOAKO KONTRATAZIO ZENTRALA - BIZITZA ETA ISTRIPU ASEGURUAK |
| N16/01559 | 2016PPRA0011 | P2 PRA, Ikasleen praktikaldiak | PERTSONALA | "Erizaintza Zaintza Osagarrien Heziketa Zikloa"ren bi ikasleen praktikaldia |
| N16/01560 | 2016UZEH0026 | UZEH, arau-hausteengatik Zehapen Espedienteak hastea | UDALTZAING | Trafiko zehapen espedienteak izapidatzea |
| N16/01561 | 2016PPRA0013 | P2 PRA, Ikasleen praktikaldiak | PERTSONALA | "Erizaintzako Zaintza Osagarriak" zikloko sei ikasleen praktikaldia |
| N16/01562 | 2016ZZEH0018 | ZZEH, espediente zehatzaileak | OZMA | Infracción de la normativa en materia de tenencia de animales |
| N16/01563 | 2016PEPA0003 | P4 EPA, epaimahaikide izateko eskaerak | PERTSONALA | BERDINTASUNEKO TEKNIKARI HAUTAKETA PROZESURAKO EPAIMAHAIKIDE BAT IZENDATZEKO ESKAERA |
| N16/01564 | 2016HZEH0004 | HZEH, Hirigintz diziplina eta esp. zehatzaileak | HIRIGINTZA | Incumplimiento condiciones de licencia de actividad |
| N16/01565 | 2016PHZK0002 | P2 HZK, zerbitzu komisioak | PERTSONALA | Merkataritza, Turismo, Teknologia berri eta Sustapen ekonomikoaren informazio batzordeko idazkari funtzioak, %50eko dedikazioarekin, zerbitzu eginkizunean esleitzea |
| N16/01566 | 2016NMAT0097 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | SDO USO DE MATERIAL MUNICIPAL PARA CONCIERTO EL 31 DE JULIO. |
| N16/01567 | 2016RHIZ0041 | RHIZ, Ibilgailuen Gaineko Zerga, Salbuespena | ERRENTAK | SDO EXENCION EN EL IMPUESTO DE VEHICULOS. |

**Esp.-kodea:** 2016SAPL0009

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| N16/01568 | 2016PESZ0002 | P3 ESZ, Eszedentziak eta zerbitzu bereziak | PERTSONALA | Saioa Urrutia: seme-alabak zaintzeko eszedentzia eskaera (2016/03/24tik-2016-07/23) |
| N16/01569 | 2016HHIR0028 | HHIR, Hirigintza eta Obrak Saileko poltsa espedientea, txikia | HIRIGINTZA | Igerilekuetara doazen erabiltzaileek Arruena parkean aparkatu ahal izateko baimena. |
| N16/01570 | 2016ZZEH0019 | ZZEH, espediente zehatzaileak | OZMA | Txakur espezieko animaliak edukitzeari buruzko arau-haustea |
| N16/01571 | 2016BDIR0010 | BDIR, Diruzaintzako Poltsa espedientea | DIRUZAINTZ | COMPENSACIÓN DE OFICIO |
| N16/01572 | 2016HZEH0101 | HZEH, Hirigintz diziplina eta esp. zehatzaileak | HIRIGINTZA | Colocación de elemento a modo de toldo. |
| N16/01573 | 2015SKOR0001 | SKOR, Udal korporazioaren eraketa eta antolaketa | IDAZKARITZ | UDAL KORPORAZIOA 2015-2019: ANTOLAKETA |
| N16/01574 | 2015HZEH0104 | HZEH, Hirigintz diziplina eta esp. zehatzaileak | HIRIGINTZA | Colocación de persiana en carpintería de celosía. |
| N16/01575 | 2016UALE0022 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA INTERPUESTA. |
| N16/01576 | 2016HJBA0013 | HJBA, Jardueren baja eskatzea | HIRIGINTZA | EXPOSICION Y VENTA DE CERAMICA - MOSAICOS OMU |
| N16/01577 | 2016UALE0023 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | SDO RESPUESTA A LA ALEGACION INTERPUESTA CONTRA MULTA |
| N16/01578 | 2016UALE0026 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA Y RECARGO DE LA MISMA |
| N16/01579 | 2016UALE0024 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA |
| N16/01580 | 2016UALE0025 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA INTERPUESTA. |
| N16/01581 | 2016LENP0008 | LENP, Enplegu Saileko Poltsa espedientea | ENPLEGUA | merkataritza bulegoari babesa 2016 |
| N16/01582 | 2016UALE0020 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | PDO ALEGACIONES CONTRA EL PAGO DE MULTA, OTA Y SOLICITAR NOTIFICACIONES. |
| N16/01583 | 2016RHOZ0034 | RHOZ, Ondasun Higiezinen Gaineko Zergaren hobariak | ERRENTAK | ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN HOBARIA ESKATZEA. |
| N16/01584 | 2016PIKA0042 | P5 IKA, Prestakuntza ikastaroak | PERTSONALA | Arkauten oinarrizko agenteen formazioa |
| N16/01585 | 2016RHOZ0035 | RHOZ, Ondasun Higiezinen Gaineko Zergaren hobariak | ERRENTAK | SDO BONIFICACION EN EL IBIL |
| N16/01586 | 2016RHOZ0036 | RHOZ, Ondasun Higiezinen Gaineko Zergaren hobariak | ERRENTAK | ONDASUN HIGIEZINEN ZERGAREN HOBARIA ESKATZEA. |
| N16/01587 | 2016NMAT0098 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | SDO AUTORIZACION PARA LA REUNION DE CARACTER RELIGIOSO EN BITERI PLAZA EL 27 DE AGOSTO. |
| N16/01588 | 2016PPRA0004 | P2 PRA, Ikasleen praktikaldiak | PERTSONALA | Pauso Berriak 2016 |
| N16/01589 | 2016PPRA0004 | P2 PRA, Ikasleen praktikaldiak | PERTSONALA | Pauso Berriak 2016 |
| N16/01590 | 2016NMAT0099 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | IRAILAREN 8 AN UDAL JABETZAKO MATERIALA ERABILTZEKO BAIMENA ESKATZEA. |
| N16/01591 | 2016ZZEH0020 | ZZEH, espediente zehatzaileak | OZMA | Infracción de la normativa en materia de tenencia de animales |
| N16/01592 | 2016CPOB0003 | CPOB, kontratazioa, proiektuak eta obrak | OZMA | Gazteluondo eraikinean komunak berritzeko obrak |
| N16/01593 | 2016SATZ0005 | SATZ, Atzerritarren inskripzioa berritzea | IDAZKARITZ | RENOVACION PADRONAL EXTRANJEROS 01-02-2016 |
| N16/01594 | 2016SATZ0006 | SATZ, Atzerritarren inskripzioa berritzea | IDAZKARITZ | RENOVACION PADRONAL EXTRANJEROS 01-03-2016 |
| N16/01595 | 2016DKON0001 | DKON, Kontuhartzailetzako poltsa espedientea | KONTRATAZI | CONCEDIENDO PLAZO PARA FACILITAR INFORMACION ECONOMICO-FINANCIERA DE LOS EJERCICIOS DEL 2013 AL 2015 |
| N16/01597 | 2016HHHH0047 | HHHH, Hirigintzako Poltsa Espedientea, Haundia | HIRIGINTZA | LIORRA BASERRI ONDOKO BIDE PUBLIKOA KONPONTARAZTEA - FORZAR A LA ADECUACION DEL CAMINO PUBLICO |
| N16/01598 | 2016ZKAL0008 | ZKAL, Udal ondareak izandako kalte ekonomikoak eskatzea | IDAZKARITZ | Daños en ascensor de Ferixaleku el 1-06-2016 |
| N16/01599 | 2016AGAS0016 | AGAS, Inbertsioak < 6.000 | KIROLA | UARKAPEKO MARKAGAILUAREN LED-AK ALDATZEA |
| N16/01600 | 2016PIKA0040 | P5 IKA, Prestakuntza ikastaroak | PERTSONALA | Libros y Literatura infantil y juvenil |
| N16/01602 | 2016ZTXI0038 | ZTXI, Zerbitzu txikiak | OZMA | Limpiezas especiales para realizar enseptiembre-diciembre 2016 (Auzo lagun) |

**Esp.-kodea:** 2016SAPL0009

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| N16/01603 | 2016HAMI0002 | HAMI, Jarduera Sailkatuak A | HIRIGINTZA | FAGOR ARRASATE: AMPLIACION DE ACTIVIDAD - JARDUERA HANDITZEA |
| N16/01604 | 2016UALE0027 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA INTERPUESTA. |
| N16/01605 | 2016UBER0002 | UBER, Berraztertze errekurtsoa | UDALTZAING | RECURSO DE REPOSICIÓN CONTRA MULTA INTERPUESTA. |
| N16/01606 | 2016ZAZT0019 | ZAZT, Azoka txikia | OZMA | SDO AUTORIZACION VENTA AMBULANTE EN MERCADILLO |
| N16/01607 | 2015PHZK0001 | P2 HZK, zerbitzu komisioak | PERTSONALA | Egitekoak betetzeko zerbitzu eginkizuna, Euskaltegian 5S proiektua ezartzeko |
| N16/01608 | 2016PLHI0002 | P1 LHI, lan-hitzarmenak | PERTSONALA | Praktikazko udaltzainen ordainsariak |
| N16/01609 | 2016PLHI0003 | P1 LHI, lan-hitzarmenak | PERTSONALA | Bitarteko udaltzainen ordainsariak |
| N16/01610 | 2016PLHI0004 | P1 LHI, lan-hitzarmenak | PERTSONALA | Lan istripuegatiko bajaldietako ordainsariak (plusak) |
| N16/01611 | 2016PMUR0011 | P3 MUR, Lanjardunaren murrizketa | PERTSONALA | Araitz Arregi: lan-jarduna murrizketa luzatzea |
| N16/01612 | 2016PMUR0010 | P3 MUR, Lanjardunaren murrizketa | PERTSONALA | Naiara Corcuera: %50eko lan jardun murrizketa eskatzea, 2016/09/01etik 2017/05/31 arte |
| N16/01613 | 2016PBIF0053 | P3 BIF, Bitarteko Funtzionarioak izendatzea | PERTSONALA | Iturbide Egoitzako aisialdi monitoreareen ordezkapena abuztuan |
| N16/01614 | 2016PBIF0056 | P3 BIF, Bitarteko Funtzionarioak izendatzea | PERTSONALA | Naiara Corcuera ordezkatzea, lan-jardun murrizketa dela eta |
| N16/01615 | 2015PBIF0140 | P3 BIF, Bitarteko Funtzionarioak izendatzea | PERTSONALA | Saioa Urrutiaren baja ordezkatzea |
| N16/01616 | 2016SSEC0027 | SSEC, Idazkaritzako Poltsa espedientea | IDAZKARITZ | EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEAK.IRAILAK 25 |
| N16/01617 | 2016PBIF0057 | P3 BIF, Bitarteko Funtzionarioak izendatzea | PERTSONALA | Xabier Tramon Sampedro bitarteko funtzionario izendatzea |
| N16/01618 | 2016UALE0021 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA INTERPUESTA. |
| N16/01619 | 2016UALE0019 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA INTERPUESTA. |
| N16/01620 | 2016SEZK0014 | SEZK, Ezkontzak | ALKATETZA | ESKONTZA ZIBILA OSPATZEKO ESKAERA |
| N16/01621 | 2015SKOR0001 | SKOR, Udal korporazioaren eraketa eta antolaketa | IDAZKARITZ | UDAL KORPORAZIOA 2015-2019: ANTOLAKETA |
| N16/01622 | 2016UZEH0027 | UZEH, arau-hausteengatik Zehapen Espedienteak hastea | UDALTZAING | Trafiko zehapen espedienteak izapidatzea |
| N16/01623 | 2016ZZEH0021 | ZZEH, espediente zehatzaileak | OZMA | Infracción de la normativa en materia de tenencia de animales |
| N16/01624 | 2016ZZEH0022 | ZZEH, espediente zehatzaileak | OZMA | Infracción de la normativa en materia de tenencia de animales |
| N16/01625 | 2016CPOB0005 | CPOB, kontratazioa, proiektuak eta obrak | HIRIGINTZA | JOSE LUIS IÑARRA KALEAN APARKALEKUAK EGOKITZEKO LANAK EGITEKO OBRA KONTRATUA |
| N16/01626 | 2016ZAZT0021 | ZAZT, Azoka txikia | OZMA | SDO AUTORIZACION VENTA AMBULANTE EN MERCADILLO |
| N16/01627 | 2016ZAZT0020 | ZAZT, Azoka txikia | OZMA | SDO AUTORIZACION VENTA AMBULANTE EN MERCADILLO |
| N16/01628 | 2016NMAT0104 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | 2016/09/03AN ITURRIOTZ KALEAN DAGOEN PLAZATXOA ERABILTZEKO BAIMENA ESKATZEA |
| N16/01629 | 2016NMAT0105 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | MATERIALA LAGA EDO JABARI PUBLIKOA ERABILTZEKO ESKAERA |
| N16/01630 | 2016PMUR0012 | P3 MUR, Lanjardunaren murrizketa | PERTSONALA | Eva Pescador: lan jarduna %33 murrizteko eskaera (2016-09-01etik 2016-12-31era arte) |
| N16/01631 | 2014PHBP0001 | P2 HBP, barne promozioz, lanpostu finkoen horniketak | PERTSONALA | Kudeaketa administratiboko teknikaria |
| N16/01632 | 2016NMAT0106 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | IRAILAK 5-6AN BITERI PLAZA ERABILTZEKO BAIMENA ESKATZEA |
| N16/01633 | 2015PBIF0056 | P3 BIF, Bitarteko Funtzionarioak izendatzea | PERTSONALA | Ane Odriozolaren lan-jardun murrizketaren hutsunea betetzeko bitarteko funtzionarioa izendatzea |
| N16/01634 | 2015PBIF0048 | P3 BIF, Bitarteko Funtzionarioak izendatzea | PERTSONALA | Olatz Lazkanoren lan-jardun murrizketaren hutsunea betetzeko bitarteko funtzionaria izendatzea (%33 lanjarduna) |

**Esp.-kodea:** 2016SAPL0009

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| N16/01636 | 2016CPOB0005 | CPOB, kontratazioa, proiektuak eta obrak | HIRIGINTZA | JOSE LUIS IÑARRA KALEAN APARKALEKUAK EGOKITZEKO LANAK EGITEKO OBRA KONTRATUA |
| N16/01637 | 2016SEOB0031 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01638 | 2016SEOB0032 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01639 | 2016SEOB0033 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01640 | 2016SEOB0034 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01641 | 2016SEOB0035 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01642 | 2016SEOB0036 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01643 | 2016SEOB0037 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01644 | 2016SEOB0038 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01645 | 2016SEOB0039 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01646 | 2016SEOB0040 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN BAJA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01647 | 2016SEOB0041 | SEOB, erroldan ofiziozko baja ematea | IDAZKARITZ | BIZTANLEEN ERROLDAN ALTA EMATEKO ESKAERA |
| N16/01649 | 2016ZERA0009 | ZERA, Ondare erantzukizunari buruzko erreklamazioa | OZMA | KOTXEAN JASANDAKO KALTEENGATIK ERREKLAMAZIOA JARTZEA. |
| N16/01650 | 2016PEPA0004 | P4 EPA, epaimahaikide izateko eskaerak | PERTSONALA | Eskoriatzako Udalan hainbat kirol zerbitzu emateko Kontratazio Mahaiaren Aholkulari izateko, Larraitz Sanzberroren laguntza eskatzea. |
| N16/01651 | 2016NMAT0108 | NMAT, materiala laga eta/edo jabari publikoa erabiltzea | OZMA | MAIATZAREN 1EKO PLAZAN IRAILAREN 8AN KALE ANTZERKIA EGOTEKO BAIMENA |
| N16/01653 | 2016PBIF0055 | P3 BIF, Bitarteko Funtzionarioak izendatzea | PERTSONALA | Bitarteko funtzionarioa izendatzea 'Administrazioa (mantenua) lanpostua betetzeko |
| N16/01654 | 2016RBAR0028 | RBAR, barruko espedienteak | KONTRATAZI | Fakturak onartzea; 75. zerrenda |
| N16/01655 | 2016ZKOM0020 | ZKOM, Komunitate obretan partaidetza | OZMA | JARRITAKO PLATAFORMAREN GASTUAN PARTE HARTZEKO ESKAERA EGITEA. |
| N16/01656 | 2016ZEAT0007 | ZEAT, Etxaluzeko aretoak erabiltzeko eskaerak | OZMA | ETXALUZEKO GELAK ERABILTZEKO ESKAERA |
| N16/01657 | 2016UALE0032 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA INTERPUESTA. |
| N16/01658 | 2016UALE0031 | UALE, isunen alegazioei erantzutea | UDALTZAING | ALEGACIONES CONTRA MULTA INTERPUESTA |